

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2026ko apirilaren 14ko ohiko bilkuran onetsitako ebazpenen laburpena

– **Presa fiskaleko dekretu arauemailea:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

2/2026 Presa fiskaleko dekretu arauemailea, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Ekialde Ertaineko krisiaren ondoriozko egoera ekonomikoari erantzuteko premiazko zerga neurriei.

– **Foru dekretua:**

NEKAZARITZA SAILA

13/2026 Foru Dekretua, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea landa bideak egokitzeko laguntzen eta landa inguruneak erakundeek egindako nekazaritza jarduerak sustatzeko intereseko beste inbertsio batzuen oinarri arautzaileei.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

214/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Domina Juan Manuel Lavín Santamaríari ematea.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

215/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Behin betiko onespena ematea Lezako udalerrirako egin den Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako hiri lur-zoruaren mugaketari.

216/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea aurrekontu aldaketarako zenbait espedienteri, landa garapenaren alde egiteko laguntza lerroen partida batzuk funtsez hornitzeko, Nekazaritza Sailak eskatuta.

217/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko hainbat espedienteri, funtsez hornitzeko "Bide azpiegituren hainbat urtetarako azterlanak" partida 2027. urteetan, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak hala eskatuta.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

218/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea ikus-entzunezkoen sorkuntzarako 2026ko laguntzen deialdiari.

219/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 17ko 84/2026 Erabakian egindako hutsak zuzentzeari.

220/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arraia-Maetzuko Udalarik gauzako dirulaguntza bat emateari, Arabako Mendialdeko asfalto naturalen Meatze Paisaiak interpretatzeko zentroan jarduketara gehigarriak kontratatuz eta 2026-2028 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzeari.

221/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Lezeko aparkalekua bizikleten azpiegitura gisa egokitzeko obren proiektuaren aldatzeari, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 11ko 671/2025 Erabakiaren bidez onetsia.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

222/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzuan ari diren funtzionarioen ordainsariak ehuneko 1,5 handitzeari 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

223/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea «Arabako Lurralde Historikoko bidaiarien eskualdeko garraio zerbitzuaren 1, 11, 12, 15, 16, 17, 24 eta 25 loteak” izeneko espedientea publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatzea, 1.540.000,00 euroko aurrekontuarekin (BEZa ez da aplikatzen) eta gauzatzeko bi urteko epearekin.

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

224/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren eta pertsonentzat benetako arriskuak edo arrisku potentzialak eragiten dituzten ezustekoei eta larrialdietarako obrei aurre egiteko dirulaguntzarik ez emateari. Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 4ko 661/2025 Erabakiaren bidez egin zen dirulaguntza horietarako deialdia.

NEKAZARITZA SAILA

225/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea 2026an Arabako Lurralde Historikoan abere arrazak hazteko, abereen osasunerako eta abereen ekoizpe-nerako programa kolektiboak kudeatzeko laguntzen deialdiari.

226/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 18ko 693/2025 Erabakiaren bidez onartutako Basogintzako Laguntzen Planaren deialdia ebaztera bideratutako kontsignazioa handitzea.

227/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea in-gurumenaren, klimaren eta bestelakoen kudeaketa konpromisoak hartzeagatik laguntzen deialdiko ebazpenari, zeina Kontseiluaren otsailaren 18ko 95/2025 Erabakiak onetsi baitzuen.

KULTURA ETA KIROL SAILA

228/2026 Erabakia, apirilaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 30eko 843/2025 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze-ko errekurtoa ezesteari (Esp.: 01171001-2025/00116).